



<p><b>DIRULAGUNTZA DEIALDIA, ANTSOAINGO ELKARTEETAN ETA ESTABLEZIMENDUETAN KARTELAK ETA ERROTULUAK EUSKARAZ EDO ELEBIZ JARTZEKO ETA WEBGUNEAK EUSKARARA ITZULTZEKO.</b></p> <p><b>XEDEA</b></p> <p>Antsoaingo Udalak dirulaguntzak emanen dizkie Antsoaingo udalerraren barrutian egoitza duten udalean erregistratutako elkarteei eta establezimenduei, jarritako errrotulazioan edo webgunean euskara edo euskara eta gaztelania erabiltzen badute (fatxada, erakusleihoa, eguzki-oihal, ibilgailu komertzial eta webguneetan), honako arau hauek jarraituta:</p> <p><b>ARAUAK</b></p> <ol style="list-style-type: none"><li>1. Dirulaguntzak 2024. urteko aurrekontuko 1 33500 4820008 dirusailaren kontura ordainduko dira. Xede honetarako, gehienez ere, 1.000,00 euro erabiliko dira.</li><li>2. Antsoaingo Udalak euskarri berrien gastuaren % 50eko lagunza emanen du establezimenduak errrotulu edo webgune berrian euskara erabiltzen badu eta 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera jarri eta fakturatu bada. Gehienez ere 350,00 euroko lagunza emanen du errrotulu edo webgune berri bakoitzeko itzulpenagatik.</li><li>3. Betebehar tributario eta ez tributarioak egunean eduki beharko dira Antsoaingo Udalarekin.</li><li>4. Dendariak ez du dirulaguntzarik jasoko errrotulu berrian izen berezia soilik agertzen bada; adibidez, "Irantz" edo "Ezkaba". Aldiz, jasoko du dirulaguntza izen generikoa ere agertzen bada, esaterako, "Mikel oinetakoak" edo "Ezkaba belar denda".</li></ol> <p>Halaber, webgunearen euskarazko bertsioak komertzioaren deskripzioa</p>	<p><b>CONVOCATORIA DE SUBVENCIÓN PARA COLOCACIÓN DE CARTELES Y RÓTULOS EN EUSKERA O BILINGÜES EN LAS ASOCIACIONES Y LOS ESTABLECIMIENTOS DE ANSOÁIN, Y TRADUCIR PÁGINAS WEB.</b></p> <p><b>OBJETO</b></p> <p>El Ayuntamiento de Ansoáin concederá subvenciones a las asociaciones registradas en su censo municipal y a los establecimientos ubicados en el término municipal de Ansoáin que utilicen el euskera o el euskera y castellano en la rotulación del establecimiento (rotulación en fachadas, escaparates, toldos, vehículos comerciales y páginas web), siguiendo estas bases:</p> <p><b>BASES</b></p> <ol style="list-style-type: none"><li>1. Estas ayudas se abonarán con cargo a la partida presupuestaria 1 33500 4820008 del año 2024. Se destinará a este objetivo un máximo de 1.000,00 euros.</li><li>2. El Ayuntamiento de Ansoáin subvencionará el 50% del gasto de las nuevas rotulaciones o traducciones de páginas web cuando el establecimiento utilice el euskera en los soportes que se coloquen y sean facturadas a partir del 1 de enero de 2024. Para cada nueva rotulación se subvencionará un máximo de 350,00 euros.</li><li>3. Se deberá estar al corriente del pago de obligaciones tributarias y no tributarias con el Ayuntamiento de Ansoáin.</li><li>4. La persona responsable del establecimiento no recibirá ayuda cuando en la nueva rotulación sólo figure el nombre propio, por ejemplo, "Irantz" o "Ezkaba". En cambio, sí recibirá subvención si figura también el nombre genérico en euskera, por ejemplo: "Irantz oinetakoak" o "Ezkaba belar denda".</li></ol> <p>Asimismo, la versión en euskera de la web deberá ofrecer la descripción del</p>
--	--



<p>eskaini beharko du, ematen dituen zerbitzuak eta horiek eskuratzeko prozedurak erakutsiz.</p>	<p>comercio, los servicios que oferta y los procedimientos para obtenerlos.</p>
<p>5. Dirulaguntza jaso ahal izateko errotuluak zuzen idatzita egon beharko du. Horretarako, laguntzen onuradun izan daitezkeen haiek Udaleko Euskara Zerbitzuaren doako itzulpen, zuzenketa eta aholkularitza zerbitzua erabili ahalko dute.</p>	<p>5. Para recibir la subvención el rótulo deberá estar correcto y adecuadamente escrito. Para ello las posibles personas beneficiarias de la subvención, podrán realizar uso gratuito del servicio de traducción, corrección y asesoramiento del Servicio de Euskera Municipal.</p>
<p>6. Errotuluak euskaraz eta gaztelaniaz egiten badira, hizkuntza bakoitzean agertzen den testuak berdina izan beharko du neurriari, kokapenari eta gainerako ezaugarriei dagokienez. Gauza bera webguneei dagokienez.</p>	<p>6. En las rotulaciones en euskera y castellano, el texto de los dos idiomas será igual en cuanto a tamaño, colocación y otras características. Lo mismo se aplicará a las páginas web.</p>
<p>7. Dirulaguntza eskatzeko prozedura.</p>	<p>7. Procedimiento para solicitar la subvención.</p>
<p>Eskaera errotulu berria jarrita dagoenean edo webgunea itzulita dagoenean eginen da. Interesdunek honako bide hauetako edozein erabiliz aurkeztu beharko dute eskabidea beteta:</p>	<p>La solicitud se realizará una vez colocada la nueva rotulación o una vez traducida la página web. Las personas interesadas deberán presentar la solicitud cumplimentada por cualquiera de los siguientes medios:</p>
<ul style="list-style-type: none"><li>- Modu telematikoan, udalaren egoitza elektronikoaren bidez: <a href="https://sedeelectronica.ansoain.es">https://sedeelectronica.ansoain.es</a></li><li>- Antsoaingo Udalaren bulegoetan (Udaletxe plaza 1, Antsoain), astelehenetik ostiralera, 8:30-14:00, emango zaion eredu normalizatuaren arabera.</li></ul>	<p>-De forma telemática a través de la sede electrónica municipal: <a href="https://sedeelectronica.ansoain.es">https://sedeelectronica.ansoain.es</a></p>
<p>Eskatzaileak, eskaera-orriarekin batera, honako agiriak aurkeztuko ditu: errotuluaren edo webgune itzulpenaren faktura (jatorrizkoa edo kopia konpultsatua); bankuko ordainagiria edo antzerako egiaztapen dokumentua, garbi adierazita ordaintzailea, onuraduna, kontzeptua eta data; eta errotuluaren bi argazki (bat orokorra, aurrealde osokoa; eta bestea zehatza, errotulurena).</p>	<p>- De forma presencial, en las oficinas del Ayuntamiento de Ansoáin (Plaza Consistorial 1, de Ansoáin) en horario de lunes a viernes de 8:30 a 14:00 horas, que deberá ajustarse al modelo normalizado que se le facilitará.</p>
<p>8. Eskaerak aurkezteko epea deialdi hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hasiko da, eta abenduaren 1ean amaituko.</p>	<p>La persona solicitante presentará, junto con la instancia correspondiente, la factura del rótulo (original o fotocopia compulsada) o de la traducción de la web; el justificante bancario de pago o similar que deberá indicar claramente quién ordena el pago, la empresa beneficiaria, el concepto, así como la fecha de pago; y dos fotografías del rótulo (una general de la fachada y otra detallada del rótulo).</p>
	<p>8. El plazo de presentación de solicitudes comenzará a partir del día siguiente al de la publicación de la presente convocatoria en el Boletín Oficial de Navarra y finalizará el 1 de diciembre.</p>



<p>9. Dirulaguntzaren esleipena. Euskara Zerbitzuaren txostena jasota, aurkeztutako eskaerei dagozkien dirulaguntzak ebatziko dira 30 eguneko epean. Dirulaguntzak erregistroko dataren araberako hurrenkeran esleituko dira, diru-saila agortu arte. Euskara Zerbitzuaren txostena aldekoa izanda ere, dirulaguntza ematerik ez badago, kontusaila agortuta dagoelako, eskatzaileak berriro eskatu ahalko du dirulaguntza hurrengo urteko lehenengo hiru hilabeteetan. Udalak horrela jakinaraziko dio eskatzaileari.</p> <p>10. Ebazpenaren kontra, bide administratiboa itxiko duena, errekurso hauetakoren bat jarri ahal izanen da aukeran:</p> <ul style="list-style-type: none"><li>-ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI-ERREKURTSOA, Nafarroako Administrazioarekiko Auzien eskumeneko organo eskudunari zuzendua, ebazpena jakinarazi eta biharamunetik BI HILABETEKO epean.</li><li>- GORA JOTZEKO errekursoa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, ebazpena jakinarazi eta ONDOKO HILABETEAN.</li><li>- BERRAZTERTZEKO errekursoa, egintza ebatzi duen organoari zuzendua, erabakia jakinarazi eta hilabeteko epean.</li></ul> <p>11. Arautzeko legedia. Deialdia 38/2003 Dirulaguntza Lege Orokorraren arabera arautuko da.</p> <p>12. Jarduera eta obra lizentziarekin batera, Udalak interesdunei gai honen inguruan lortu daitekeen diru-laguntzaren berri emanen die.</p> <p>13. Antsoaingo Udalak dirulaguntza honen xedearen jarraipen materiala egin ahal izanen du.</p>	<p>9. Concesión de ayudas. Una vez recibido el informe del Servicio de Euskera, se resolverán las ayudas correspondientes a las solicitudes presentadas en el plazo de 30 días. Las ayudas se otorgarán siguiendo el orden de registro, hasta agotar la partida existente. En el caso de que, aun siendo positivo el informe del Servicio de Euskera, no se pueda abonar la ayuda por estar agotada la partida presupuestaria, la persona solicitante podrá volver a hacer la solicitud durante el primer trimestre del año siguiente. Así lo comunicará el Ayuntamiento a la persona solicitante.</p> <p>10. Contra dicha resolución, que pondrá fin a la vía administrativa, cabrá interponer optativamente uno de los siguientes recursos:</p> <ul style="list-style-type: none"><li>- Recurso CONTENCIOSO - ADMINISTRATIVO ante el órgano competente de la Jurisdicción Contencioso - Administrativo de Navarra en el plazo de DOS MESES contados desde el día siguiente al de la notificación de la resolución.</li><li>- Recuso de ALZADA ante el Tribunal Administrativo de Navarra en el plazo de UN MES siguiente a la fecha de notificación de esta resolución.</li><li>- Recurso de REPOSICIÓN ante el mismo órgano autor del acto en el plazo de UN MES a partir del día siguiente al de la notificación de esta resolución.</li></ul> <p>11. Normativa reguladora. Esta convocatoria se regirá por la Ley 38/2003 General de Subvenciones.</p> <p>12. Junto a la licencia de actividad y obra, el Ayuntamiento dará información a las personas interesadas de la posibilidad de solicitar ayuda por el concepto de rotulación en euskera.</p> <p>13. El Ayuntamiento de Ansoáin podrá hacer un seguimiento material del objeto de esta subvención.</p>
---	---